"Judging other directors doesn't scare me, although it worries me a little. I don't think it's difficult being fair because if I'm good at something, that's precisely at cinema", points out Vicente Aranda with humility. The filmmaker, a well-known detractor of cinematographic awards "in the American way", is convinced of the fact that festivals shouldn't be competitive. "A festival should be a "film party", but people wants prizes". He's come to the San Sebastian Festival "because of Estremera and Diego; I wouldn't have come otherwise. Here I feel really well, I perceive another air, another atmosphere. The films? Well, that's another subject, but I think it's difficult finding good productions". About his films, the one he likes the most it is always his last work: *Intruso*. Meanwhile, he's already working on the script of his next film: the adaptation of *La pasión turca* by Antonio Gala.

Vicente Molina Foix

• Nuevos Realizadores

«Rectificar es un deber del crítico de cine»

VICENTE Molina Foix, uno de los encargados de enjuiciar en esta edición del Festival los trabajos de los nuevos realizadores, es tajante con el único criterio a utilizar: la calidad. "El criterio tiene que ser siempre la calidad, con la primera o la octava película. Y, al tratarse de un premio en metálico importante, un estímulo a la continuidad, yo creo que deben apoyarse las películas que apuesten fuerte, no las más conformes con el cine que se ve, sino las que plantean una vía nueva".

Filósofo, escritor, profesor, autor de teatro y ópera, Molina Foix no desprecia como género el que ha cultivado durante muchos años en la revista "Fotogramas". Pronto saldrá a la calle una recopilación de algunas de sus críticas escritas entre 1981 y 1993 con el título de "El cine estilográfico". Ha querido hacer un guiño al cine clásico francés y al término de Astruc "cinema stylo", que reivindica un cine con la misma libertad formal y estética con la que el escritor empuña su pluma.

Para el libro ha realizado una selección de sus críticas: "Algunos criterios han evolucionado en el tiempo, pero en ningún caso he cambiado de opinión fulgurantemente". Recuerda que la crítica de *El nido* de Armiñán, fue una valoración "muy injusta". "En otra crítica posterior rectificué porque creo que rectificar es un deber del crítico de cine".

Al Festival le considera "un viejo conocido, o mejor uno de esos primeros amores que nunca se olvidan. Con él he pasado intensas lunas de miel y etapas de repudio. Yo me he reconciliado, y espero encontrarle a él también en plena forma".

J.D.E.

CINE
manía
CINE

CINEMANIA

el primer canal vía satélite en castellano dedicado solo al cine,
les ofrece el ciclo

" LOS MEJORES 100 AÑOS
DE NUESTRA VIDA "



NOTICIAS BERRIAK NEWS



VILLAGRAN

● **A LA CAZA DEL AUTOGRAFO.** Como ya es habitual en los fines de semana del certamen, la entrada del hotel María Cristina se llena de niños y no tan niños a la caza del artista, aunque, cualquier tarde, la paciente espera del autógrafo es una imagen tradicional. ¿Es usted famoso?, preguntan, sin reconocer, a casi todo el que sale por la puerta principal del recinto.



EGANA

● **DE LAS SEVILLANAS A TINA TURNER.** La sesión maratónica celebrada ayer en el Velódromo de Anoeta registró un lleno importante, principalmente a partir de la película *Maratón*, aunque Sevillanas fue muy aplaudida a lo largo de sus once variantes de esta modalidad musical. La mayor venta de entradas se produjo para ver la vida de Tina Turner en pantalla gigante.



VILLAGRAN

● **ALEX DE LA IGLESIA SIN MUTANTES.** El director de *Acción mutante*, Alex de la Iglesia, no se ha querido perder el Festival e incluso ha madrugado para ver la película de Bigas Luna, durante la sesión matinal de la Sección Oficial. Su largometraje está incluida en la sección "Made in Spain".



EGANA



● JENNIFER BEALS, "FAN" DE ERICE.

Aunque no acude al Festival con ninguna película, Jennifer Beals llegó ayer a San Sebastián tras haber participado en el último filme de Alan Rudolph, "La señora Parker y la mesa redonda", basada en la vida de esta escritora norteamericana de los años 20. Le acompañan los actores Martha Plimpton, Gwyneth Paltrow y Sam Robards, que también han intervenido en este último trabajo del director norteamericano. Mientras su marido, Alexandre Rockwell, rueda otra película -"aunque tenemos proyectos para hacer una juntos"- Jennifer Beals se toma un respiro antes de iniciar un nuevo trabajo, "un thriller de tipo psicológico, no violento". Mientras tanto, aprovecha para ver *El sol del membrillo* de su admirado Víctor Erice -"me encantaría trabajar con él"-, preguntar por su amiga Assumpta Serna y poder disfrutar de Donostia.



VILLAGRAN

● EL ACOSO AL JURADO.

Silvia Pinal, Vicente Aranda, Fabiano Canosa, Edward Dmytryk, Dieter Kosslick, Gregory Nava y Jose Maria Otero, los siete magníficos, o lo que es lo mismo, los siete miembros del jurado de la Sección Oficial, posaron ayer juntos por primera vez ante los reporteros.

● JAVIER BARDEM Y "SUS HUEVOS" DE ORO.

Al igual que en la foto publicitaria de *Huevos de oro*, Javier Bardem, el protagonista de la película, juega con la imagen de su personaje, Benito González, al que el director ha definido como "impresentable, pero con algo de humanidad". Se muestra agradecido a Bigas Luna por la oportunidad que le ha brindado en esta tercera película, "y por ponerme las cosas cada vez más difíciles, gracias a Dios".

OPINION **IRITZIA** OPINION

Nora joaten ote dira desengidako ilusioak?

Bernardo ATXAGA

BIZITZAN bide bat hartzen dugunarekin batera, edo, zehatzago, bizimodu bat hartzera behartuak suertatzen garenean, beste bide edota bizimodu batzuk uzten ditugu alde batera eta betirako. Oro har, erabaki hori heldutasunaren ildotik ulertzen da: pertsona batek inozentzia galdu eta ametsak amets direla konprendituko luke, alegia errealitatea ez dela guk desiratzen duguna, eta aurrera egin ahal izateko errealitatearen argi arrunt baina seguruak hartu behar direla aintzat, eta ez ilusioaren argi eder baina, ay! engainatzaileak. Zer gertatu zitzaion ura edatera espejismora joan zen txoriari? -galdetzen zaio pertsona gazteari, laster bide batetik edo bestetik joan behar duen horri. Bada egarriak hil zela, erantzuten eta erakusten zaio.

Arazoa ez da ordea goizetik gauera erabakitzen, nahiz bide eta bikuitz kontuak, metaforak beti duen gezur horrekin, halaxe pentsarazi. Aitzitik, egunero erabakitzen dugu zerbait uztea eta beste zerbait onartzea, eta urtebete soil bat igaro eta atzera begiratzen dugunean,

bizimoduz aldatu egin garela iruditzen zaigu. Aldaketak, hori bai, gero eta ttikiagoak direla, eta, noski, ezin dela konparatu 10 urtetik 15era guran eta gure jokaeretan antzeman genuen aldaketa, 35 urtetik 40ra antzeman dezakegunarekin. Zeren, jakina, kasu gehientsuenetan behintzat, 40 urteko pertsonari ilusio gutxi gelditzen zaizkio errealitate pusketen aldeira eman ahal izateko, eta bere bizimoduari buruzko irudipen subjektiboa gertuago egoten da karriletik doan trenaren iruditik, airean libre dabilen txoriarenetik baino. Berrogei urtetik gorako jendea, normalean, bizimodu jakin batean errotuta dago jadanik, edo bestela -lagun batek humore beltzez esaten zuenez- bizimodu batean datza.

Egin ote daiteke 40 urtetik gorako pertsona horrek alde batera utzi dituen ilusio eta espejismoen zerrenda bat? Saia gaitzen: hiru urterekin hegan egiteko gauza ez zela onartu zuen; zortzirekin, berriz, bere aita eta munduko izakirik boteretsuena pertsona desberdinak zirela; hamahirurekin, bere amak ezin ziola eman berak nahi zuen afektu guztia; hamabostekin, dirurik gabe bizitzea zaila dela; hamazortzirekin, dirurik gabe bizitzea ezinezkoa dela; hogeitabatekin, justiziarik ez dagoela munduan; hogeitahirurekin, gure gizartean eta gure munduan dirua baino jainko errespetatuagorik ez dela, eta Quevedo ez zela tontoa; hogeitabostekin, enamortzea ez zela zehazki sila batean eseri eta kitarra jotzea, eta kanta tradizionalak zerbaitengatik iraun dutela; hogeitazazpirekin, mundu hau eta gizarte hau ez direla uste bezain ulerterrazak; hogeitamarrekin, mundu hau eta gizarte hau ulertezinak direla; hogeitamabirekin, pintatzea edo marraztea edo musika jotzea ez zaigula lehen adina gustatzen, lehen adina aldiz ez dugula egiten behintzat...

Irakurle argiari adibide gutxi, eta zerrenda luzatu gabe banoa orain, izenburuzkoaz hasiz, beste hainbat galdera egitera: Nora joaten ote dira desegindako ilusio

guzti horiek? Erraustu egiten dira erabat ala errainu edo fantasma bezala geratzen dira guran? Inolako baliorik ez zuten ximplekeriak ziren, eta zuzen jokatu genuen beraz haiek guztiak baztertzearrekin, ala zapuztuta eta bentzaturik gelditutako bizimodu argitsuago baten ernamuinak?

Ez diet galdera horiei erantzungo, zeran azken batean nor bere erantzuna aurkitu behar baitu. Horren ordez nagoen etxeko leihotik ikusten dudana etxetxo bat deskribatuko dizuet. Oso ttikia da, eta hesitutako 100 metro karratuko terreno ttiki baten txokoan dago. Nagusiak, edadeko nekazari batek, usoak dauzka bertan, eta hori dela eta noiznahi joaten da uso horiei jana ematera edo nola dauden ikustera. Horretaz gainera -eta hau da garrantzizkoa ari garenerako-, esparru guztia pitxi eta horniduraz betea dauka, horietako nabarmenenak toretzarekin lotuta daudelarik. Esate baterako, bere lekuxka horren atarian berak *Cortijo El Cordobés* dioen txartel bat dauka jarrita, eta gainera, ildo beretik, berak ahal bezala hornitutako torero eta zezen baten figurak korozten dituzte sarrera ateko bi zutabeak; eta neskaren baten ile txirikordarekin egindako *zezen-isats* bat ez da falta; ezta zezenaren adarrak imitatzen dituen egurrezko tramankulu bat ere. Bestalde, arrosategi ttiki baina eder bat dauka, eta ederraren ederrez, kolore bizitan pintatutako anforak -hamar bat gutxienez- azaltzen dira altura guztietan, usategiaren teilatuko anguloetan edo haren atarian zutitutako egurrezko esola batzuen gainetan. Eta dena dago txuri eta ttukun, bera bizi den etxea ez dagoen bezala.

Bere traketsen, bere modu inozent eta beharbada patetikoan, nekazariaren jokaerak erantzun bat ematen digu. Ez, desegindako ilusioak ez dira erabat erraustu eta galtzen, eta handik edo hemendik azaldu egiten dira, bereziki pertsonari, jubilatzean edo, Bizimodu Nagusia bukatzen zaionean. Eta azaltzen direnean, azaltzen zaizkigunean, susmo batek hotzikara bat sortzen digu bizkarran, agian huraxe zela, utzitakoa, benetan maite genuen bizimodua...

ATSEGIN DUGU ZINEMA

Aurten berriro ere, Nazioarteko Zinemaldiak Donostia bihurtuko du Zinemaren munduko ardatz. Hainbat Zuzendari, ekoizle, antzesle eta pantaila handiaren zaletuk bisitatuko dute gure hiria. **kutxa**k agertarazi nahi du arte-gertakizun handi honekiko bere atxekimendua, Anoetako Belodromoan ospatuko den Zine-Marathoia babestuz. Horrela, zinema maite dugun guztiok atsegin har dezagun gogotik.

Un año más, el Festival Internacional convierte a San Sebastián en el centro mundial del Cine. Directores, productores, actores y aficionados a la gran pantalla visitan nuestra ciudad. **kutxa** quiere demostrar su apoyo a este acontecimiento artístico patrocinando el Marathon de Cine en el Velódromo de Anoeta. Para que así todos los que amamos el cine, podamos disfrutar a lo grande.

NOS GUSTA EL CINE

Babesle / Patrocinado por:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

• gipuzkoa donostia kutxaren
gizarte-ekintra
• obra social
de la caja gipuzkoa san sebastián

MARATHON
DE CINE



WELLMAN WELLMAN WELLMAN

Chicos en la carretera, Bill Cody en la pradera ensangrentada

NACIÓ en 1846 en una granja de Iowa. Se llamaba William Frederick Cody. A los 14 años era correo del Pony Express y cabalgaba de Missouri a San Francisco en nueve días. Más tarde se convertiría en el gran depredador de la pradera. Aniquiló miles de bisontes sentenciando al hambre a los orgullosos indios. Fue guía de un general paranoico, Custer, en sus guerras contra los sioux. Tuvo la suerte de encontrarse con un escritor muy listo, Ned Buntline, que necesitaba un héroe para sus novelas de a centavo en aquella época en la que la leyenda del Oeste vendía más y mejor que la realidad. Ya maduro y sin fuerza, se retiró y convirtió sus aventuras -muchas de ellas lindamente prefabricadas- en un puñado de espectáculos circenses. Con uno de ellos, llamado "Wild West Show", recorrió Europa asombrando a la alta aristocracia en San Petersburgo en compañía del mismísimo Toro Sentado y de la siempre arrogante Juana Calamidad.

Ese personaje que ya apareció en pelucillas de 1894 firmadas por W.K. L. Dickinson destinadas al kinetoscopio y que en 1907, aún en vida, ya tenía su biografía de cine firmada por Paul Panzer, es el invitado de honor o deshonora en este domingo "wellmaniano". Cierto que la leyenda, otra vez la leyenda, afirma que el guionista de *Las aventuras de Buffalo Bill*, Gene Fowler, quemó literalmente el libreto y le espetó a Willie: "No podemos masacrar a un héroe que adoran nuestros hijos" pero lo más probable es que nada de eso ocurriese porque Wellman y Fowler eran tipos legales, de buena encarnadura, a los que les salió una película nada grandilocuente, con los pies en la tierra y un par de escenas inolvidables. Por ejemplo, la que reproduce la batalla de War Bonnet Gorge con la cámara empapada en el barro y en el agua del río.

Otra de las citas de hoy en el Pequeño Casino 1 es con esos pibes salvajes que deambulan por los caminos, *Wild Boys of the Road*. Presten atención los amantes de las crónicas amorosas porque esa muchachita con aires de chico llamada Sally no es otra que miss Dorothy Coonan, más tarde esposa de "Wild Bill".

Dottie no tenía la menor intención de trabajar como actriz. Ella era bailarina pero mister Wellman le convenció. Le dijo que no había encontrado en todo Hollywood alguien como ella y que



Buffalo Bill.

necesitaba sus... 182 pecas, aseguradas, según la oficina de prensa del estudio en 100.000\$.

Otro título potente para esta jornada, *Midnight Mary* o *Rosa de Medianoche*. Es un filme de gángsters escrito por una dama imprescindible del Hollywood de siempre, Anita Loos, la autora de "Los caballeros las prefieren rubias". Rodado utilizando los trucos complicados pero perfectos "flash backs" y con el firme apoyo de Loretta Young y Franchot Tone, lo único que echó en falta el

crítico del "Post" fueron unas "pinceladas de sexo". El Código Hayes de moralidad aún no estaba en vigor, claro...

Ultima misión dominical, recuperar *El Testigo*, *Star Witness*. Más que nada porque en este dramita con toques de comedia se oye en off la voz de Wellman y porque aparece, joven y luchador, Walter Huston, padre de John y abuelo de Anjelica y de uno de nuestros invitados al festival, Danny.

Begoña DEL TESO

PARA HOY

PELICULA	SALA	HORA
<i>Midnight Mary</i>	P.Casino 1	17.15
<i>Buffalo Bill</i>	Astoria 4	17.15
<i>The Ox-Bow Incident</i>	Astoria 5	17.15
<i>Wild Boys of the Road</i>	P.Casino 1	19.30
<i>The Star Witness</i>	Astoria 6	20.15
<i>Safe in Hell</i>	Astoria 6	21.30
<i>Call of the Wild</i>	P.Casino 1	22.00
<i>Heroes for Sale</i>	Astoria 4	22.30

• Kontu Kontari

Wild Wellman ikuslegoari bronka botatzen

"FILME bat egitea zer nolako lan ikargarria den ez duzue sekulan sumatuko. Ez naiz esfortzu fisikoaz ari. Ez eta buru nekeaz ere. Horiek ofizio, lanbide guztietan esistitzen dira. Ni, nerbioei buruz ari natzaizue. Atezua, leher nahia, stressa, estomago, urdailan biribilkatu, kizkurtzen diren sensazio guzti horiek ditut hizbide. Izan ere, "Zuzendari tripak" esaera asmatu dute Hollywooden.

"Tripa" horiek aktore, ekoizle, "The Hollywood Reporter", kritikari eta kontu katiluek nahastu egiten dituzte. Baina zuek zarete kulpantirik handienak. Zuek, ikuslegoa. Zer nahi duzue ez dakizue eta nahi duzuen lortzean, ez duzue nahi. Lege zaharrak sexuak erakarriko omen zaituela dio baina zikina izan behar, bestela, akabo. Hilketak ere dituzue gogoko baina pelikulerok jendea akatzeko gero eta modu beldugarriagoa asmatu beharrean jar-tzen gaituzue. Nik Cagneyen gorpua anaiaren atean utzi nuen. Richard Widmardek, berriz, aulki gurpilduna zerabilen atso gaisoa eskaileretatik bota zuen. Joan den egunean, semeak bere biktimei besoak moztu eta gero jan egiten zituen gizon bat ikusi zuen zinean. Handiagorik ba al dugu egiterik?

Beste kontu bat aipatuko dizuet, ikuslego aukeratu baten aurrean egiten diren aurre estrenuak, "sneak previews" direla-koak. Hortxe baietz zure tripek eztanda egiten dutela. Ziur nago filmea kritikakiduko duten ikusle "preziatu" horiek inbidiaz egingo dutela. Baina, zer axola?

B.T.

Wild Boys of The Road, Wild Bill of the prairie...

Buffalo Bill, filmed in Technicolor, was one of the best box-office successes in the history of Twentieth Century-Fox. An excessively romantic version of the character, it contains one of Wellman's greatest sequences: that of the battle of Bonnet Gorge. Also, it is one of the few Hollywood films of the time to have treated the American Indian with understanding. Again, *Wild Boys of the Road*, in spite of the excessive sentimental naiveté of its ending, is a powerful argument against unemployment and the hardships which lead to delinquency. Another film, *Midnight Mary*, a gangster story written by Anita Loos. Wellman's star was again Loretta Young, who had already appeared with him twice (*The Hatchet Man* and *Heroes for Sale*) and was still to make a fourth film with him (*The Call of the Wild*). *Midnight Mary* used a complex flashback technique to tell its story; flashbacks are devices that Wellman never cared much for and critical reaction to *Midnight Mary* was split pretty evenly on the technique's effectiveness here. Finally, *The Star Witness* is distinguished mainly by Wellman's imaginative staging of the scenes and the brisk pace he maintains. At times Wellman adopts a nearly expressionistic style since more is alluded to than shown; he was a master of shadow and suggestion.



MADE IN SPAIN'93

TODAY

El beso del sueño
Dir: Rafael Moreno Alba
Astoria 217.00

El pájaro de la felicidad
Dir: Pilar Miró
Astoria 2 19.30

El maestro de esgrima
Dir: Pedro Olea
Astoria 222.15



Assumpta Serna and Omero Antonutti in *The Master Swordman*.

The international success of *The Master Swordman* goes on

BASED on the novel with the same title by Arturo Pérez-Reverte, *The Master Swordman*, to be screened today, is an unusual period thriller where political conspiracies, love and fencing are intermingled.

El Cairo (where Pedro Olea was paid a tribute as a filmmaker, together with Elia Kazan), Puerto Rico, Punta del Este, London... are some of the cities where *The Master Swordman* has been successfully screened, both on the part of the audience and the critic, not to forget its economic success, "even greater than in Spain", according to director Pedro Olea. After last year's première at the San Sebastian Festival, the film returns in this edition to the "Made in Spain'93" section; "anyway, I'm delighted and fully satisfied about my coming back to this Festival, to this section where so many different films compete. Although *The Master Swordman* was run down by many people, it contrasted with Derek Malcolm's opinion, one of the most important critics".

The feature, which was almost included as one of the five nominated films to the Oscar to the best foreign film in Hollywood, is set in the 1868 Madrid and has had great repercussion at many film festivals, "which means a professional incentive I hadn't had for a long time, even if I've been flying for the whole year". Actually, he's flying to Chicago next week, where *The Master Swordman* will open the Festival of Spanish Cinema, which he couldn't attend to last year.

However, the director from Bilbao feels like putting an end to this work, starred by Omero Antonutti, Assumpta Serna and Joaquim de Almeida, and start planning his next project, another thriller, but this time set in our day and age and under the title of *Morirás en Chafarinas*; again, the script is based on a book, this time by Fernando Lalana, "and I'd like to count on Gabino Diego as the character playing the starring role of the soldier". This film involves a new challenge to Pedro Olea, more ambitious and difficult than *The Master Swordman*, "because I'm definitely more used to shooting period films such as *Tormento*, *Akelarre* and *La leyenda del cura de Barga*ta.

Mirentxu ETXEBERRIA

UNIDOS POR EL CINE



tve

Patrocinador Oficial



41 NAZIOARTEKO ZINEMALDIA
FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL
DONOSTIA SAN SEBASTIAN



POLVO DE ESTRELLAS IZARREN HAUTSA STARDUST

Angela Bassett

• Tina filmearen protagonista

«Ez naiz indarkeriaren batere aldeko»

WATH'S Love Got To Do With It (Zer ikusirik du maitasunak horrekin?). Galdera horixe bera egiten diogu guk ere geure buruari? Tina Turner abeslariaren biografian oinarritutako filmeak, maitasunari buruzkoa baino maitasun-gorrotzko harreman masokista baten ingurukoa baitirudi. Fimean gauza azpimarragarriak bada, musikaren indarra eta Tina pantailetan gozpuzten duen aktorea dira. Angela Bassett asun koloreko amerikana dotore batez agertu zen prentsaurrera, ile-mataza "rasta" erara kizkur-kizkur orrazturik. Ahoa buzoia baten neurrikoa du, baina sensuala da aldeberean. Ahotza probokatzailera du eta berba, ezin geldituzkoa.

"Errodaia hasi baino bi aste lehenago ezagutu nuen Tina. Elkar ezagutze polita izan genuen, pertsona zoragarria iruditu

zitzaidan hasiera-hasieratik. Errodaia hastear zegoen eta Tinak eszenategia bortzaz eta indarrez menderatzeko duen berezko erraztasuna ikasteko ez zegoen denbora asko". Angela Bassettek Tinaren mugiera, keinuak eta zenbait kantutan behin eta berriz errepikatzeko nahi adina laguntza izan zuen abeslariaren aldetik: "eta ez hori bakarrik, makilatu edota orrazteko zuen modua irakatsi zitzaidan. Errodaia bitartean orpoz-orpo izan nuen beti, edozein zailantza izanez gero, huraxe argitzeko. Era honetako filmeak, eta are gehiago iragan gertuko pertsonaia baten inguruan eraikitakoak, oso "look" zaindua baitute".

Angela Bassett, newyorkdarra jaiotzez, antzerkigintzan hasi zen eta bere azken urteotako zine karrerara laburrean zehar arras erregistro ezberdineko pertsonaiak interpretatu ditu: beltzen ghettoetako gizarte arazotan murgildua (John Singletonen *Boyz 'n The Hood*), konpromezu politikoko filme batean (Spike Lee-ren *Malcolm X*) eman zen ezagutzera. Brian Gibsonen *What's Love Got To Do With It* filmearen eskutik etorri zaio, ordea, bere lehen paper protagonista: bertan Tina Turner lejidariaren larruan bete-betea sartzen delarik.

Spike Lee bezalako zuzendari apartarekin lan egiteak ospe eta esperientzia handia egotzi dio, hala ere, "umetatik ezagutu nuen *Malcolm X* filmean agert-



VILLAGRAN

zen den bortizkeriazko egoera. Horren berri izanik ere, ez naiz batera indarkeriazalea".

Angela Bassettek azpimarratu beharreko itxura aldaketa gauzatzen du filmean zehar, baina aldaketa ez da itxura hutsezkoa besterik, "gimnasio batean gogor aritu nintzen nire fisikoa lantzeko. Oso harro nago lortutako itxura aldaketaz. Baina ez da azaleko itxura bakarrik aldatzen dena. Muskuloen parera indartzen baita pertsonaiaren jokabide psikologikoa. Pusuz-pausuzko aldaketa fisiko nahiz izakerazko horrek sinisgarritasun handia ematen dio pertsonaiari". Ziur gaude Angela Bassettek gazela beltz gihatsu baten gisan abiatuko dela zeluloidaren ildotik barreña.

Sergio BASURKO

Malcolm X sirvió para educar

Comenzó en el teatro y está en San Sebastián con su propia personalidad de Angela Bassett y la de Tina Turner con quien sintonizó nada más conocerse. "Qué guapa eres" le dijo la Turner y "qué fabulosa" le respondió Bassett. La Turner de la ficción, además de contar durante 30 días con un preparador físico, empezó ensayando el papel con la ayuda de un vídeo con el fin de ir conociendo todos los detalles y las características de los pasos de la cantante por cuya parte todo han sido facilidades. Turner, según ha dicho Bassett, acudió incluso al rodaje para estar pendiente de los cambios que se iban produciendo en la película a medida que van pasando las décadas de los 60, 70 y 80... La actriz que ha trabajado con Spike Lee en *Malcolm X* y con John Singleton en *Los chicos del barrio*, dijo del primer film que "ha servido para educar a mucha gente" y del segundo que no supuso ninguna novedad para ella porque conoce ese ambiente.

La energía de las estrellas ES NATURAL



Fabrica Municipal de Gas
San Sebastián, S.A.
Donostiako Gas Udal
Lantegia, E.A.

HOY

	SECCION OFICIAL	ZABALTEGI	100 AÑOS	WELLMAN	CINE CHICANO	MADE IN SPAIN'93
MAÑANA	09.00 VICTORIA EUGENIA <i>TOMBÉS DU CIEL / CAIDOS DEL CIELO</i>	10.00 PRINCIPAL <i>URIDRE ILGUREJIN YOUNGUNG / NUESTRO DUDOSO HEROE</i>				
	12.00 VICTORIA EUGENIA <i>MANHATTAN BY NUMBERS</i>	12.15 PRINCIPAL <i>EL MARIACHI</i>				
TARDE	16.00 ASTORIA 3 <i>HUEVOS DE ORO</i>	16.30 PRINCIPAL <i>ONE FALSE MOVE / UN PASO EN FALSO</i>	16.30 P.CASINO 3 <i>MIRACOLO A MILANO</i>	17.15 P.CASINO 1 <i>MIDNIGHT MARY</i>	16.00 ASTORIA 6 PROGRAMA 2: <i>I AM JOAQUIN. YO SOY CHICANO. CHICANA</i>	17.00 ASTORIA 2 <i>EL BESO DEL SUEÑO</i>
	18.15 ASTORIA 3 <i>FENYERZENY TORTENET / HISTORIA SENSIBLE A LA LUZ</i>	17.30 ASTORIA 1 <i>URIDRE ILGUREJIN YOUNGUNG / NUESTRO DUDOSO HEROE</i>	17.00 ASTORIA 7 <i>ROBINSON CRUSOE</i>	17.15 ASTORIA 4 <i>BUFFALO BILL</i>	17.00 P.CASINO 2 PROGRAMA 5: <i>POWER, POLITICS AND LATINOS. TWENTY YEARS... ¿Y QUÉ?</i>	19.30 ASTORIA 2 <i>EL PAJARO DE LA FELICIDAD</i>
	19.00 VICTORIA EUGENIA <i>MANHATTAN BY NUMBERS</i>	19.00 PRINCIPAL <i>REBELS OF THE NEON GOD / REBELDES DEL DIOS NEON</i>	18.30 ASTORIA 6 <i>DER LETZTE MANN</i>	17.15 ASTORIA 5 <i>THE OX-BOW INCIDENT</i>	19.00 P.CASINO 3 PROGRAMA 7: <i>¡SI SE PUEDE!, THE UNWANTED.</i>	22.15 ASTORIA 2 <i>EL MAESTRO DE ESGRIMA</i>
	20.30 ASTORIA 3 <i>HUEVOS DE ORO</i>	20.00 ASTORIA 1 <i>EL MARIACHI</i>	18.45 ASTORIA 4 <i>THE QUIET MAN</i>	19.30 P.CASINO 1 <i>WILD BOYS OF THE ROAD</i>	19.30 ASTORIA 7 PROGRAMA 4: <i>CHICANO PARK, OJOS QUE NO VEN.</i>	
NOCHE	22.00 VICTORIA EUGENIA <i>TOMBÉS DU CIEL / CAIDOS DEL CIELO</i>	21.30 PRINCIPAL <i>TANGO FERROZ TANGUITO</i>	22.00 P.CASINO 3 <i>GILDA</i>	21.30 ASTORIA 6 <i>SAFE IN HELL</i>	22.30 ASTORIA 5 PROGRAMA 14 <i>RAICES DE SANGRE.</i>	
	22.30 ASTORIA 1 <i>MANHATTAN BY NUMBERS</i>	22.45 ASTORIA 3 <i>ONE FALSE MOVE / UN PASO EN FALSO</i>	22.15 ASTORIA 7 <i>NOTORIOUS</i>	22.00 P.CASINO 1 <i>CALL OF THE WILD</i>	24.00 P.CASINO 3 PROGRAMA 20 <i>LA BAMBA.</i>	
	SESION ESPECIAL	24.00 PRINCIPAL <i>Moi IVAN, TOI ABRAHAN / Yo IVAN, TU ABRAHAN</i>	22.45 P.CASINO 2 <i>HANGOVER SQUARE</i>	22.30 ASTORIA 4 <i>HEROES FOR SALE</i>		
	24.00 VICTORIA EUGENIA PELICULA SORPRESA		23.00 ASTORIA 6 <i>LAURA</i>			


ULTIMOS PASES: FENYERZENY TORTENET, HUEVOS DE ORO, OUR TWISTED HERO, EL MARIACHI, ONE FALSE MOVE, DER LETZTE MANN, SAFE IN HELL, THE STAR WITNESS, HEROES FOR SALE, PROGRAMA 4, EL BESO DEL SUEÑO, EL PAJARO DE LA FELICIDAD

MAÑANA

	SECCION OFICIAL	ZABALTEGI	100 AÑOS	WELLMAN	CINE CHICANO	MADE IN SPAIN'93
MAÑANA	09.00 VICTORIA EUGENIA <i>MADREGILDA</i>	10.00 PRINCIPAL <i>REBELS OF THE NEON GOOD / REBELDES DEL DIOS NEON</i>				
	12.00 VICTORIA EUGENIA <i>DUNKLE SCHATTEN DER ANGST / LA OSCURA SOMBRA DEL MIEDO</i>	12.15 PRINCIPAL <i>TANGO FERROZ, TANGUITO</i>				
TARDE	16.00 ASTORIA 3 <i>TOMBÉS DU CIEL / CAIDOS DEL CIELO</i>	16.30 PRINCIPAL <i>Moi IVAN, TOI ABRAHAN / Yo IVAN, TU ABRAHAN</i>	16.30 P.CASINO 3 <i>CORTOS</i>	17.15 P.CASINO 1 <i>ROBIN HOOD OF EL DORADO</i>	16.00 ASTORIA 6 PROGRAMA 7	17.00 ASTORIA 2 <i>SUBLET</i>
	18.15 ASTORIA 3 <i>MANHATTAN BY NUMBERS</i>	17.30 ASTORIA 1 <i>REBELS OF THE NEON GOOD / REBELDES DEL DIOS NEON</i>	16.30 ASTORIA 7 <i>THE BIG PARADE</i>	17.15 ASTORIA 4 <i>MIDNIGHT MARY</i>	17.00 P.CASINO 2 PROGRAMA 11	19.30 ASTORIA 2 <i>EL DIARIO DE LADY M.</i>
	19.00 VICTORIA EUGENIA <i>DUNKLE SCHATTEN DER ANGST / LA OSCURA SOMBRA DEL MIEDO</i>	19.00 PRINCIPAL <i>JARDINES COLGANTES</i>	18.30 ASTORIA 6 <i>LITTLE CAESAR</i>	19.30 P.CASINO 1 <i>NOTHING SACRED</i>	17.15 ASTORIA 5 PROGRAMA 16	
	20.30 ASTORIA 3 <i>TOMBÉS DU CIEL / CAIDOS DEL CIELO</i>	20.00 ASTORIA 1 <i>TANGO FERROZ, TANGUITO</i>	20.00 ASTORIA 5 <i>MIRACOLO A MILANO</i>	19.45 ASTORIA 4 <i>WILD BOYS OF THE ROAD</i>	19.00 P.CASINO 3 PROGRAMA 13	
NOCHE	22.00 VICTORIA EUGENIA <i>MADREGILDA</i>	21.30 PRINCIPAL <i>COMBINATION PLATTER / PLATO COMBINADO</i>	20.30 ASTORIA 6 <i>THE 5.000 FINGERS OF DR. T</i>	22.00 P.CASINO 1 <i>A STAR IS BORN</i>	19.30 ASTORIA 7 PROGRAMA 10	
	22.30 ASTORIA 1 <i>DUNKLE SCHATTEN DER ANGST / LA OSCURA SOMBRA DEL MIEDO</i>	22.45 ASTORIA 3 <i>Moi IVAN, TOI ABRAHAN / Yo IVAN, TU ABRAHAN</i>	22.00 P.CASINO 3 <i>MAD WEDNESDAY</i>	22.30 ASTORIA 4 <i>CALL OF THE WILD</i>	20.00 P.CASINO 2 PROGRAMA 12	
		24.00 PRINCIPAL <i>UN, DEUX, TROIS SOLEIL</i>	22.15 ASTORIA 7 <i>QUAI DES BRUMES</i>		23.00 ASTORIA 6 PROGRAMA 18	22.15 ASTORIA 2 <i>1492: LA CONQUISTA DEL PARAISO</i>
		24.00 P.CASINO 2 <i>CURRITO DE LA CRUZ</i>	22.30 ASTORIA 5 <i>SUNSET BOULEVARD</i>			
		24.00 P.CASINO 3 <i>THE ASPHALT JUNGLE</i>				

ULTIMOS PASES: MANHATTAN BY NUMBERS, TOMBÉS DU CIEL, REBELS OF THE NEON GOD, TANGO FERROZ TANGUITO, MOI IVAN TOI ABRAHAM, THE BIG PARADE, LITTLE CAESAR, MAD WEDNESDAY, QUAI DES BRUMES, MIDNIGHT MARY, WILD BOYS OF THE ROAD, PROGRAMAS 7, SUBLET, LA CONQUISTA DEL PARAISO.


TELE
5 EL RETO



DE LA INNOVACION



Class



SEDE CENTRAL: Plaza Pablo Picasso, s/n.
Torre Picasso, Planta 14.
28020 MADRID.
Tel. (91) 394 04 00.
Fax (91) 597 41 51 / 52.